

**Azaroaren 23an** txosten teknikoaren egiteko epea zabalduko da Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeentzat. Horretarako, **Ikerketa taldeak** aplikazioan atal berezia prestatu da, laguntza hauen jarraipenerako datuak jasotzeko.

Txosten hau **bukaerako txostena** izango da **2007deialdiko A taldeentzat**, eta **2010 deialdiko B taldeentzat**. **Tarteko txostena** izango da **2010 deialdiko B taldeentzat**.

Talde bakoitzak telematikoki bete beharko du txostena, Ikerketa Taldeak aplikazioan. Horretarako, ikertzaile nagusierak aplikazioan dauden atalak bete beharko ditu.

Aplikazioa zabalik egongo da abenduaren 9 arte: <http://www.ikerketa-taldeak.net/it2013/eu/site>

Aplikazioak sortzen duen laburpen-dokumentua ikertzaile nagusiak sinatuta helarazi beharko du Ikerketa Errektoreordetzara abenduaren 10ean beranduenez. Ikerketa Errektoreordeak sinatu eta ondoren Zientzia Politikarako zuzendaritzara bidaltzeko.

**Abenduaren 10ean gehienez**, Ikerketa Errektoreordetzan dokumentazioa honela helaraziko da:

- Posta elektronikoz eskaneatuta ([arantza.ibabe@ehu.es](mailto:arantza.ibabe@ehu.es); [itziar.martinez@ehu.es](mailto:itziar.martinez@ehu.es))
- Originala erregistroz bidali.